

Ari gara 3

Urrutiko Hizkuntza Eskola Ofizialeko Bigarren maila
(1 - 3 gaiak)



Ari gara

Urrutiko Hizkuntza Eskola Ofizialeko Bigarren maila

Pello Mateos Yeste, Garbiñe Urreizti Lezertua



Nafarroako Gobernua
Hezkuntza eta Kultura
Departamentua

Argitalpena: Nafarroako Gobernua
Hezkuntza eta Kultura Departamentua
Euskara Zerbitzua

Egileak: Pello Mateos Yeste eta
Garbiñe Urreizti Lezertua

Marrazkiak: Regina Salcedo Irurzun

Diseinua: RBK, Diseinu eta Komunikazioa

Imprimaketa: Gráficas Lizarra

L.G.: NA 2253-2002

ISBN.: 84-235-2271-7

Ari gara

Iaz, EOIDNA-ko Euskara Departamentua abian jarri zenean, gure ikastetxe kolaboratzaileei ohikoa (maila bakoitzaren kurrikulua, ebaluazio irizpideak eta azterketak) eskaintzeaz gainera argi ikusi genuen Bigarren Hezkuntzako irakasleei zertxobait gehiago eskaini behar zitzaieela: guk proposatutako kurrikulua ikasgeletan aurrera eramaten lagunduko zion ikasmaterial xorta xume bat, alegia.

Ikasmaterial hau sortzera bultzatu gintuen arrazoia kurrikuluaren beraren izaeran aurkitu behar dugu. Izan ere, EOIDNA-ko A ereduko 1. mailari zegokion kurrikulua prestatzerako orduan, HABE-k plazaratu zuena hartu genuen oinarritzat. HABE-ko kurrikuluak zerbait ona badu, eta alderdi on asko ditu, ikaslea komunikazio eraginkor eta praktikora bultzatzeko asmoa da. Horixe nahi genuen, ohiko irakasbide memoristiko eta gramatikal horretatik aldentuta, Bigarren Hezkuntzako A eredu-ko gure ikasleei komunikaziorako bide ematea.

Ari gara materialaren helburua ikasgelan lau trebetasunak lantzea da. Lau trebetasunetatik mintzamina izan da orain arte gelan lantzeko aukerarik izan ez duena, ohitura falta, batetik, eta gela-ko ikasle kopurua, bestetik, izan dira gure ustez trebetasun hau ez lantzearen arrazoi nagusiak. Guk eskaini dizuegun materialean, beraz, beste trebetasunen artean mintzamenari ere lekutxo bat egitea proposatu dizuegu.

Nozio komunikatiboa oinarri delarik, esaldiak egituratu ahal izateko errekurtsu gramatikalak gelako irakasleak zabaldu beharko ditu, betiere material osagarria baita guk sortu duguna. Gure liburua honetan ez dira betiko eta beharrezkoak diren azalpen gramatikalak aurkituko, gure programazioan mailaka definituak agertzen direnak, hauek gelako irakasleak inork baino hobeto azalduko dituela uste dugu.

Ari gara ikasmateriala bi zatitan aurkeztu nahi izan dugu: irakaslearen liburua eta ikasleena. Lehenengoan irakasleek baliagarriak izan dakizkieteen informazioak aurkituko dituzte, hala nola jarduera bakoitzaren euskarriak (testu-mota, kontestuko ezaugarriak, adierazpide linguistikoak...), prozedura, soluzioak... Bigarrenean ikasleek egin beharko dituzten zeregin guztiak, modu erakar- garrian aurkeztuak, biltzen dira.

Bukatzeko, eskerrak eman nahi genizkieke Nafarroako Gobernuko Araubide Bereziko Irakaskuntzaren eta Teknologia Berrien Zerbitzuari eta bereziki Euskara Zerbitzuari, hauen laguntzarik gabe lantxo honek ez baitzuen argia ikusi izango. Era berean, gure eskerrik beroena Nafarroako Gobernuko Ikasliburu eta Materialen Unitate Teknikoari argitalpen prozesu tekniko guztia bere gain hartu duelako. Azkenik ez genituzke aipatu gabe utzi nahi izango iaz EOIDNA-ren proiektuan A ereduan aritu ziren irakasle guztiak, haien ekarpena balio handikoa izan baita. Horiei ere eskerrak.

Aurkibidea

1. Gizartea	7
2. Garraiobideak eta komunikazioa	35
3. Pertsona	61

Gizartea



Ondo bizi nahian

1.A

Jarduera

Bazen behin...



Ahoz aho kontatzen diren istorioen artean **Pasadizoak** eta **Ipuinak** ditugu. Binaka jarri eta A ikasleak “pasadizoak” irakurri eta B ikasleari zer diren azalduko dio. B ikasleak “ipuinak” irakurri eta A ikasleari ipuinen berri emango dio.

Mintzamina



Irakurmena



A Ikaslea

PASADIZOAK

Umeei ikaragarri gustatzen zaizkie guraso edota familiako norbaiten txikitako eta gazte garaiko pasadizo eta gertaerak entzutea. Egin al duzu inoiz frogarik? Askotan ipuinik politena baino gehiago gustatzen zaie. Zenbaitetan kostatzen da egiten baitzaie gurasoak txikitari imajinatzea. Bitxia benetan:

“Gogoratzen naiz behin, bizikletak hartuta errekarara joan ginen batean...”

Adi-adi entzungo dute irribarre bihurria ezpainetan dutela, eta era guztietako xehetasunak jakin nahiko dituzte, seguru asko.

Bestalde, herri guztietan izaten da pertsona xeble bat edo bereziren bat. Baita zurean ere, seguru. Haren pasadizoren bat ere kontatu ahal zaie:

“Bazen gure herrian gizon xeble bat zorria baino alferragoa zena...”

Bestalde, pasadizoen atal honetan badira Euskal Herri osoan ezagunak diren pertsonaiak, batetik Fernando Amezketarra, bere emaztea Marijoxepa eta apaiza. Eta, bestetik, Peru eta Marixe senar-emazte inozoak. Lehenengoak Gipuzkoan dira ezagunak, batez ere, eta besteak, Bizkaian.

HABE aldizkaria



B Ikaslea

IPUINAK

Ahoz aho jasotako ipuinek, hau da, betiko ipuinek, sorteri bera dute kultura guztietan: basoa. Basora abiatzen dira neska-mutiko koskorrak ihesean, printzeak ehizan, laborariak egur bila, printzesak ur-putzuetan jostatzera. Usoa eta belea, hartza eta lehoia dituztu hango basanimaliak. Basajendea ere ibili ohi da ipuinetako basoetan: aztien aztia, haur abandonatuak, andere adinduak, gizonezko lapurrak, etsai zahar maitagarriak, basozainak, erraldoiak, ipotxak, printze-printzesa deslaidak...

Ipuinak hasteko modu asko dago baina bada bat ipuin zaharretan asko erabiltzen dena:

“Landareek eta abereek hitz egiten zuten garaian...”

Ipuin zaharretan parte hartzen duten pertsonaiak animaliak dira, gehienetan, inoiz gizaki bat azaltzen bada ere. Gehien azaltzen zaigun animalia azeria da. Gero otsoa. Beste zenbait animalia ere agertzen da: zozoa, usoa, sugea, ardia, hartza, zakurra, astoa eta abar. Azeria, esate baterako, ipuin zahar gehienetan animalia maltzurra eta azkarra bezala agertzen zaigu. Otsoa, batzuetan engainatu erraza bezala eta beste batzuetan maltzur eta azkarra izaten da.

HABE aldizkaria

1. B
Jarduera

Txikitako ipuinak



Mintzamina

Txikitan kontatzen al zizuten ipuinik?

Saiatu txikitako ipuin bat gogoratzen. Gogoratu eta gero, hiruko taldean jarri eta ipuinaren izena aipatu gabe, kontatu ipuina zure taldekoei. Taldeko beste biek zure ipuinaren izena asmatu behar dute. Ea nor asmatzen duen!

ZE
IPUIN
DA?

A ikaslea: “ ”

B ikaslea: “ ”

C ikaslea: “ ”

Bukatutakoan talde osoan komentatu zein izan diren talde txikietan atera diren ipuinak.

Ipuinak kontatzean gogoratu!:

- Kontatu behar duzun ipuina zure gustukoa izatea komeni da. Ez bazaizu gustatzen, entzuten ari dena ez da gustura egongo.
- Ipuinaren helburu nagusia dibertitzea eta interesatzea da. Horregatik, beharrezkoa da alaitasuna, magia eta interes-giroa sortzea.
- Giro hori sortzeko, ahotsa landu behar duzu kontaketa-erritmoak edukiarekin bat etortzeko. Monotoniari ihes egin. Gorputzaren zati batzuei ere erreparatu behar diezu, bereziki: aurpegi, beso eta eskuei. Aurpegiaren espresioak lagundu, azpimarratu eta baloratu egingo du zuk esandakoa.
- Liburu batetik hartutako ipuina baldin baduzu, istorioa ikasi eta barneratu egin behar duzu. Baina ez errezitatze-ko, zure hitzak erabiliz kontatzeko baidarik.



N

Ipuinak kontatzen

NOZIOAK

Ipuinak hasteko eta kontatzeko modu asko dago. Euskaraz ipuinak kontatzen nola hasi, eta kontatzen jarraitzeko eta bukatzeko adibide batzuk izan ditazun, segidako zerrendak parekatzea lortu beharko duzu.

Betiko ipuinen irudiak, ipuinen **HASIERAK, JARRAIPENEN ZATIAK** eta ipuinen **BUKAERAK** parekatu beharko dituzu.

Hurrengo hauek dira gure **ipuinak**:

Ezagutzen dituzu?





BETIKO IPUINAK DIRA, NOSKI!

HASIERAK

1 "Behin batean, Txinako hiri aberats batean, bazen Aladino izeneko mutiko bat, Mustafa jostun behartsuaren semea".

2 "Behin batean bazen neskatila bat bere amarekin bizi zena. Txanogorritxo deitzen zioten guztiek beti txano gorritz estalia zuelako burua".

3 "Duela urte asko, etxeetan urik ez zegoen garaian, bazen ostatu bat. Eta ostatu hartako neskamea ur bila joaten zen ibaiaren beste aldeko iturrira".

4 "Baziren behin hiru txerritxo, anaiak hirurak, beren ama zintzoarekin bizi zirenak".

5 "Behin batean, lurralde urrun batean, baziren errege eta erregina bat neskato eder bat izan zutenak".

6 "Bazen behin erregina harro bat, eta honela galdetzen zion egunero bere ispiluari:
- Esaidazu, ispilutxo maite hori. Nor da hemen emakumerik politena?
- Ez dago inon zu baino politagorik".

7 "Herri txiki batean Marisa gaztaina-saltzailea bizi zen".

8 "Behin batean, kilker bidaiari bat Italiako herri txiki batera iritsi zen udako gau lasai batean".

JARRAIPENAK

1 "Gau batean lapur bat hurbildu zen Marisaren etxera".

2 "Orduan amandre zaharrak, gonbidatu ez zutelako mendekatu nahian, esan zuen:
- Hamabost urte betetzean, goru baten ardatzarekin zulatu eta hil egingo da printzesa. Eta besterik esan gabe, alde egin zuen jauregitik".

3 "Bat-batean jeinu izugarri bat azaldu zen, ahots ikaragarritz esan ziena:
- Kriseiluaren morroia nauzu eta zure esanetara naukazu".

4 Egun batez ibaia urez gainezka zetorren eta ez zegoen busti gabe zeharkatzerik".

5 "Nolako ustekabea etxera heldu zirenean! Edurne Zurik gertatutako guztiaren berri eman zien, eta gero ipotx bakoitzari bere izena asmatu zion".

6 "Bat-batean, Amandre Urdina sartu zen gelan. Krispin kirkil txundituta esnatu eta ondoan zuen egurrezko panpinari esan zion:
- Kaixo, txingote hori! Zuri bizia ematera nator, sortu zaituen gizonaren nahia betetzeko.

7 "Egun batean otsoa azaldu zen anaia zaharrenaren etxean eta putz eginez bota egin zuen".

8 "Egun batean, goizean goiz, esan zion amak: amona gaixorik dago eta ezin da jaiki. Eramaiozu zerbait jateko".



BUKAERAK

- 1** "Printzea paseatzen zebilen, musu eman zion eta hau esnatu egin zen, loaldi luze baten ondoren. Esaten dute handik laster ezkondu egin zirela eta urte askotan bizi izan zirela biak zoriontasun betean".
- 2** "Lotsatuta eta erdi hilda, otsoak urruti ihes egin zuen eta geroztik inork ez du haren berri izan".
- 3** "Egun hartan bertan ezkondu ziren printzea eta Loti Ederra, eta zoriontsuak izan ziren betiko, Amandre Zintzoaren babesaz".
- 4** "Lehen gaizto izan eta txintxo bihurtzen diren mutikoen saria merezi dute -esan zion Amandreak, eta makiltxo magikoarekin ukitutuz besteak bezalako haur bihurtu zuen, hezur-haragizkoa".
- 5** "Aladino eta emaztea zoriontsu bizi izan ziren. Sultana hildakoan Aladino izan zen Txinako errege, eta urte askoz agindu zuen herritarren maitasunez".
- 6** "Une hartantxe ehiztari bat ari zen handik igarotzen. Tiro egin eta otsoa akabatu zuen. Musu eta besarkada handiak eman zizkieten elkarri amonak eta Txanogorritxok".
- 7** "Deabruak gauz bakarrik lan egin dezakete; horregatik joan zen harria bota eta ihesi. Eta horrelaxe salbatu zen neskame tuntun hura".
- 8** "Ordudanik, txoriak Marisaren labetxoaren ondoan gelditzen ziren bero-berotan. Gure gaztaina-saltzailearen lagunik zintzoenak ziren".

Aurreko irudiak ezagutu, ze ipuin diren gogoratu eta beren izenak eta hauei dagozkien **HASIERA, JARRAI-PENA** eta **BUKAERA**ren zenbakiak jarri koadroetan:

Zenbakiak jarri!

Ipuinaren izena	HASIERA	JARRAI-PENA	BUKAERA

ETA IPUINAK BUKATZEAN...

Hauetako bat aukeratu eta esan



2.

Jarduera

"Pernando orain ere engainatu nahian"



Mintzamena



Irakurmena

Jarraian Pernandoren pasadizoak ezagutuko ditugu. Hirunaka jarrita, bakoitzak pasadizo desberdin bat izango du. Baina arazo bat dugu, hiru pasadizoak nahastu egin dira eta ikasle bakoitzak bere hiru zatiak lortu (hasiera, jarraipena eta bukaera) eta ordenatu behar ditu istorio osoa ulertzeko.

A, B eta C
Ikasleak



1. zatiak ongi dago, zure pasadizoarena da. Beste biak lortu ipuina osatzeko!

Hasteko, hirurok lehenengo zatiak (bakoitzak berea) irakurri eta ulertuko duzue. Gero txandaka, lehenik A-k, gero B-k eta azkenik C-k zuen taldeari kontatuko diozue. Zaila bada, irakurri.

Segidan, hirurok bigarren zatiak irakurri eta txandaka elkarri kontatzen saiatuko zarete. Bukatzeko, hirugarren zatiak elkarri kontatu. Entzuten ari denak berea den ala ez asmatu beharko du eta beheko koadrotxoan gurutzeak jarri.

Ipuin osoa lortu eta gero, dena segidan irakurri, saiatu ulertzen eta ikasle bakoitzak bere ipuin osoa kontatuko du.

Lortu zure ipuina

Nahastuak daude

“Pernando orain ere engainatu nahian”

Irakurri eta ulertu:

A
Ikaslea

“Pernandoren zorrak”

Pernandok zorrak omen zituen, eta ordaintzeko dirurik ez. Bere hartzaileak aspertu ziren itxoiten eta, horrela, bi gizon etorri ziren Pernandoren etxera, jeup! hots eginez.

Pernando atera zitzaaien esanez:

- Zer gizonak?
- Hara bada –erantzun zioten besteek–, zure etxe gainean diru pixka bat badugula etaaa... huraxe jasotzera etorri gara.

Hau
norena da?



Pernando berehala atera zen:

- Zer dugu gizonak! –esanez.
- Zer dugun esaten diguzu? –erantzun zioten besteek haserre bizian–, nahiko barre egin duzu gure kontura, eta oraingoan besterik ez bada, ukuiluko behiak edo zer edo zer eraman gabe ez gara joango.
- Ez dago gaizki –erantzun zien Pernandok patxadan. Orduan Pernandok andreari deitu eta oso haserre esan zion:
- Ikusten duzu orain? Gizon hauek ukuiluko behiak eta ez dakit zer kenduko dizkigutela diote, izan ere zuregatik egin genituen zorrak guk! Orain ikusten duzu? Bertan hiltzea merezi duzu. Eta besterik gabe, hartu kutxiloa, eta emaztearen bularrean sartu zuen. Emazte gaixoa lurrera erori zen luze-luze odoletan...

Bi gizonak hau ikustean Pernandori heldu zioten esanez:

- Baina gizona, zer egin duzu? Zorrak daukazula eta, andrea hilko duzu, bada, orain? Guk behintzat...
- Ez ikaratu, gizonak! –erantzun zien Pernandok–, horrelakoak egiten ohituta nago ni lehenago eta. Gero atera poltsikoan zeukan txilibitua eta emaztearen belarri ondoan hasi zen: piit... piit... Andrea berehalaxe jaiki zen, ezer gertatu izan ez balitz bezala.

Bi gizonak harrিতuta eta ikaratuta gelditu ziren...

- Pernando –esan zioten azkenean–, orain artekoak zerbait ziren, baina hau... Txilibitu hori eman beharko diguzu, gu ere inoiz emazteekin haserretu izan gara.

– Txilibitu hau nik eman... ezta mundu guztiko diruarengatik ere! –erantzun zien Pernandok–, txilibitu hau izan ez banu, honezkero mila aldiz hila nuen nik nire andrea.

Baina bi gizonak hainbeste erregu egin zioten, emateko eta emateko, azkenean Pernandok andreari esan zion:

– Txilibitu hau ematera noa gizon hauei, hemendik aurrera bakean bizitzea besterik ez dugu...

Eta hau norena?

Bi gizonak pozik joan ziren beren etxeetara, aitzurra bizkarrean zutela. Etxean esan zieten beren emazteei:

3

– Gaur ogirik ez hartu, e! Hemendik aurrera ez dugu ogi faltarik izango.

Bazkaltzeko ordua iritsi zenean, gizon haietako bat joan zen baratzera eta aitzurrean hasi zen jo eta ke, baina han ez zen ogirik ateratzen.

Horrela ari zela etorri zitzaion laguna esanez:

– Utzi niri orain aitzur hori, zuk honezkero nahikoa duzu eta... nik ere behar dut bazkaltzeko ogia.

– Aitzur honek ogi ateratzeko zain baldin bazaude, egon beharko duzu pixka batean –erantzun zion aitzurrean ari zenak, kopetako izerdia igurtziz–, sartu digu ederra Pernandok...!

Orduan konturatu ziren, Pernandok ogiak lehendik sartuak edukiko zituela.

Eta hau norena?

"Kontu Zaharrak", moldatua.

"Pernandoren zorrak"

Nork ditu beste zatiak, JARRAIPENA eta BUKAERA?

	A	B	C
1	Hasiera		
2			
3			

“Pernando orain ere engainatu nahian”

Irakurri eta ulertu:

B
Ikaslea

“Baratzeko ogia”

Hurrengo goiz batean, Pernando ukuluko lanak egiten ari zela, etorri ziren berriz bi gizonak. Pernandok ikusi zituen nola zetozen eta andreari esan zion:

– Hemen dira berriz ere lehengoko bi gizon haiek, eta gaur ere dirurik gabe gaude gu; zer edo zer asmatu beharko dugu. Ogirik ba al daukazu etxean?

– Bat edo bi bai –erantzun zion emazteak. Pernandok hartu zituen bi ogi, eta baratzeko bazter batean sartu zituen lurpean.

Bi gizonak iritsi zirenean aurrekoan bezala hots egin zuten:

– Jeup...!, gaur ere hemen gara, dirurik baduzun edo...
– Sartu behintzat sukalderraino –erantzun zien Pernandok–, ogi eta ardo pixka bat hartzeko, eta han hitz egingo dugu.

Haiek sukaldera joan ziren eta Pernando atera egin zen, eta aitzur bat bizkarrean zuela baratzera abiatu zen.



Hau norena da?

– Ez genuen hori esan nahi –esan zioten besteek–, zeraaa..., zuk guri dirua zor diguzula eta hura jasotzera etorri gara.

– Hori beste gauza bat da –erantzun zien Pernandok–, banengoen bada ni gure etxe gainean dirurik ote zegoen nik jakin gabe. Baina orain ez daukat nik dirurik eta beste egunen batean etorri beharko zarete.

Bi gizonak beren etxera joan ziren.

Eta hau norena?

Bi gizonak pozik joan ziren etxera txilibitua berekin zutela. Pernando eta bere emaztea etxean gelditu ziren. Andrea kezka pixka batekin.

- Ez al dituzte behintzat emazteak hilko! –esan zion Pernandori.
- Esnatuko ahal dira lehenago! –erantzun zion honek.

Laster izan zuten bi gizonak emazteekin haserretzeko motiboa. Batek kutxiloa hartu, eta hil zuen bere andrea, eta gero hildakoaren ondoan txilibitua jo eta jo hasi zen.... piiit.... piiit...

Horrela ari zela etorri zitzaion bestea:

- Utzi txilibitua, andrea hil dut eta...
- Zuk ere hil al duzu! –erantzun zion besteak–.

Biek saio haundiak egin zituzten emazteen belarri ondoan txilibitua jotzen... baina dena alferrik. Emazteak ondo hilda gelditu ziren, eta bi gizonak alargun.

**Eta hau
norena?**

"Kontu Zaharrak", moldatua.

"Baratzeko ogia"

**Nork ditu beste zatiak,
JARRAIPENA eta BUKAERA?**

	A	B	C
1		Hasiera	
2			
3			

“Pernando orain ere engainatu nahian”

C
Ikaslea

Irakurri eta ulertu:

“Emaztearen heriotza”

Handik egun batzuetara berriz ere bi gizonak Pernandoren etxera badoaz elkarri esanez:

1

- Besterik ez bada ukuiluko behiak kenduko dizkiogu oraingoan. Pernandok ikusi zituen nola zetozen eta bere emazteari hots egin zion:
- Aizu, zatoz pixka batean. Betiko bi gizon horiek hemen datoz orain ere. Bete ezazu zahato txikia ardoz, eta jar ezazu golkoan. Hona iristen direnean, ni zurekin haserretuta banengo bezala hasiko naiz eta kutxiloa sartuko dizut golkoan. Zu lurrera eroriko zara, hilda bazeunde bezala. Gero nik txilibitua joko dizut belarri ondoan, eta jaiki egingo zara.

Bi gizonak iritsi ziren beti bezala jeup...! hots eginez.

Hau
norena da?



Nire etxe gainean dirua dagoela? –esan zien Pernandok–, hori jakin banu ez nintzen nabilen bezala ibiliko. Hartu jaunak eskailerak eta teilatura; han dagoen diru guztia zuentzat.

2

Eta hau
norena?

Pernando baratzerira iritsi zenean, hartu eskuetan aitzurra, eta aitzurtzen hasi zen. Berehala atera zuen ogi bat eta gero beste bat. Orduan, bi gizonek haiek entzuteko moduan esan zuen:

- Gaurko nahikoa izango dut; gehiago behar badut, etorriko naiz. Bi ogiak hartu eta etxera abiatu zen. Beste biak ikusi zituenean, harrituta bezala esan zien:
- Hemen al zineten bada zuek? Goazen etxeraino, ogi eta ardoa hartzera.
- Ikusi zaitugu ogiak lurretik ateratzen Pernando –erantzun zioten besteek–, ez daukagu guk ogi eta ardo beharrik, baina aitzur hori eman behar diguzu, gu ere inoiz ogirik gabe gelditu izan gara, errotariak ihes egin digula edo...
- Eta ni nola bizi zuei aitzur hau emanda? –esan zien Pernandok–, nik hau behar dut egu-nero ogia jateko.
- Begira Pernando –esan zioten besteek–, zor guztiak barkatuko dizkizugu aitzur hori ematen badiguzu.
- Zorigaitzoko zorrak! –erantzun zien Pernandok–, baina hala nahi baduzue, zuentzat aitzurra, eta ogia ez bada artoa edo taloa janez biziko gara!

Eta hau norena?

"Kontu Zaharrak", moldatua.

"Emaztearen heriotza"

Nork ditu beste zatiak, JARRAIPENA eta BUKAERA?

	A	B	C
1			Hasiera
2			
3			

3.

Jarduera

Biluzik ala bainujantziarekin?



Irakurmena

Bakarka irakurri:

Uda hastearekin batera, leporaino betetzen dira Euskal Herriko hondartzak. Eguzkipean biluzik egon nahi dutenek, ordea, txoko ezkuturen batera joan beharko dute.



**IRAKURRI
ETA SAIATU
ULERTZEN!**

Nudismoaren alde daudenek hurrengo arrazoiak ematen dituzte:

- 1** Larru gorritan egotea oso eroso da. Bainujantzia ez da batere praktikoa: ez gaitu berotzen, uretan berdin-berdin bustitzen gara, eta gainera, gastu bat da.
- 2** Larru gorritan ibiltzea osasuntsua da. Larruazala jantzirik zoragarriena da, baina guk ito egiten dugu arrokekin; ez diogu arnasa hartzen uzten.
- 3** Biluzik ibiltzen den jendea gusturago dago bere buruarekin, eta zoriontsuago eta libreago sentitzen da, autoestimu haundiagoa dute.
- 4** Gizakiak gorputza tapatzen du ikasi egin duelako, kulturala da, ez da naturala. Ume txikiak ez dira lotsatzen larru gorritan ibiltzeagatik; geroago ikasten dute lotsa zer den.

5 Libratu egiten gaituzte gizartean ditugun roletatik. Mozorro guztiak kenduta, berdinagoak sentitzen gara denak.

6 Arropek ezkutatu egiten dituzte gorputz atalen forma eta tamaina ezberdinak. Hori dela eta, jende asko konplexuz beterik bizi da, uste duelako hedabideetan agertzen diren gorputz perfektuak direla normalak.

7 Nudistek arazorik gabe onartzen dute haien gorputza eta, horrexegatik, sexualitatea modu naturalagoan bizi dute.

Legeak jendearen askatasuna eta gutxiengoaren eskubideak babesteko daude. Horregatik, ulertezina da herri gehienetan nudismoa legez kanpoko izatea. Oraindik inork ez du frogatu zer kalte egiten dion biluztasunak interes orokorrari.

Aizu! aldizkaria



Hirunaka jarri eta bakoitzak bere iritzia emango du. Gero aurkeztu talde osoari zure taldearen iritzia.

Mintzamena



N

Haserreak

NOZIOAK

Imanol Mariarekin benetan haserretu da. Datorren larunbateko kontzertura joan nahi zuen eta Mariari agindu zion sarrera hartzeko. Taberna batean elkartu dira eta Mariak esan dio beretzat eta Leirentzat hartu dituela sarrerak baina Imanolena hartzea ahaztu egin zaiola, eta orain berandu da sarrera lortzeko.



4.A

Jarduera

Goenkalen ere haserretzen dira



Entzumena

Miren, Maddalen eta bere anaia kalean zehar paseatzen ari dira. Maddalen oso haserre dago. Zer gertatu ote da?

Entzun, hutsuneak bete eta ulertu:

- Ez dut inoiz eskolan azterketa batera ere huts egin!, sekula ez!
- Orain Koldo nazkagarri horrengatik...
- Lehendik ere abisatuta egon zara
.....
- Gainera noizbait izan behar zuen lehenengo, ez?
- Baina
gauza bat da norberak huts egitea, baina beste batengatik izatea...
- Baina hala ere aukeran, hobe orain izatea, kurtso hasieran esan nahi dut...
- Bai, baina apunteak putzuan... bat egon behar munduan eta hori nire aurrean suertatu behar...
- Baina Maddalen, Koldo honek telenobela bateko pertsonaia ematen du...
- Telenobelakoa?
- Bai, galaia, elegantea, jateko modukoa, ez duzu inoiz horrelakorik aurkituko. Lanak, gainera, berriro egingo dituzu. Koldo bezalakorik Maddalen...
- Maddalen, Mirenek arrazoia dauka, Bueno Kuban edo bilatzen ez baduzu...
- Bai, gainera,?
.....
- Maddalen, gu ere serio ari gara, badakigu gauza horiekin ezin gaitzkeela jolasean ibili.
- Ba, harrapatzen dudanean
egin didana eta entzungo dizkit entzun beharrekoak.
- Jakina entzungo dizkizula...
- Eta nik sinestu, aurrean jartzen zaizunean zu ixil-ixilik eta
.....
- Oilo bustia ni, ez horixe!
- Anix, ez duzu zure arreba ezagutzen, e?
- Ez dudala nire arreba ezagutzen, ez ezagutu gabe, aspaldian bizi naiz berarekin, e?
Eta esan dituen guztiak eta gehiago esango dizkio Koldori ikusi orduko!
-!
- Lehenbailehen joan behar dugu Koldo jakinaren gainean jartzera, horrela Maddalen ikusi orduko,
.....



Arian, arian, edozer zulatzen da

Egin dezagun gogoeta txiki bat.

Zeuk ikasi duzuna burura eta paperera ekarri eta gero, konparatu hirunaka antzeko memorizazioa izan duzuen.

**ZER
IKASI
DUT?**

Sustantiboak

Adjetiboak

Nozioak

Israel

Alejandria

2

Garraiobideak eta komunikazioa

El Fayyum

Asyüt

Farafra

Assuan

El kharga

Naser

El Subu

Ttipi-ttapa Ttipi-ttapa baina gelditu gabe ailegatu zen



1.A
Jarduera

Denok trenera!!




Entzumena

Toki batetik bestera joateko garraiobide desberdinak erabiltzen ditugu. Segidan adituko dituzu egoera batzuk.

Identifikatu egoera bakoitza garraiobideekin.

EGOERAK

	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J
Hegazkina										
Bizikleta										
Kotxea										
Trena										



1.B
Jarduera

Irurera doan tren irtetera doa. 1. trenbidean dago

Entzun berriro aurreko jardueraren egoerak. Zein dira mezu horien helburua?

Hiru erantzun hauetatik aukeratu egokia.

A

- Talgoa non aurkitzen ahal den galdetzea.
- Talgoa ailegatu den ala ez galdetzea.
- Talgora igotzeko txartela erostea.

B

- Kotxe bat alokatzeko prezioa galdetzea.
- Kotxe bat alokatzeko intentzioa agertzea.
- Alokatu duen kotxea non dagoen galdetzea.

C


- Poliziak gidari bati isuna jartzea.
- Poliziak gidari bati karneta eskatzea.
- Poliziak alkoholemia-kontrola egitea.

D

- Hegazkinerako txartelak erostea.
- Hegaldia bertan behera geratu dela iragartzea.
- Hegazkina lurreratzean instrukzioak ematea.

E

- Trenaren atzerapenaren berri ematea.
- Trena garaiz iritsiko dela jakinaraztea.
- Treneko bagoia aurkitzeko informazioa ematea.



F

- Norbaitek taxi bat nahi duela adieraztea.
- Norbaitek gasolina erostea.
- Kotxea gidatzen ikasteko instrukzioak ematea.



G

- Hegaldi baterako erreserba anulatzea.
- Hegaldi baterako erreserba konfirmatzea.
- Norbaitek galdu duen maleta erreklamatzeko.

H

- Trenaren etorrera iragartzea.
- Trenak geldialdi motza egingo duela iragartzea.
- Trena berehala aterako dela informatzea.



I

- Txirrindulari bati zigorra jartzea.
- Txirrindulari batek ura eskatzea.
- Txirrindulari bati animoa ematea.



J

- Mekanikoari errieta egitea.
- Mekanikoari txirrindula konpontzeko instrukzioak ematea.
- Mekanikoari faktura ordaintzea.

2.A

Jarduera

Donostiarako autobusen ordutegia, mesedez?



Maiz gertatzen zaigu eguneroko bizimodu-
duan informazioa eskatu behar izatea.

Entzumena

Entzun arretaz
elkarrizketa hau.



2.B

Jarduera

Donostiarako autobusen ordutegia, mesedez?

Berriz entzun elkarrizketa. Jarri zure bikotearekin eta bete irakasleak esango dizun fitxa.
Falta zaizun informazioa zure ikaskideak du. **Galdetu eta fitxa osatu.**

A fitxa

“Beti berandu” autobus enpresako langileak eman duen informazioa:

• **Astegunetan**

Maiztasuna:
 Lehenengo autobusa: **8,15etan**
 Bigarrena:
 Hirugarrena:
 Azkena:

• **Asteburuetan**

Maiztasuna:
 Lehenengo autobusa: **9,00etan**
 Bigarrena:
 Hirugarrena:
 Azkena:

B fitxa

“Beti berandu” autobus enpresako langileak eman duen informazioa:

• Astegunetan

Maiztasuna:

Lehenengo autobusa: **8,15etan**

Bigarrena:

Hirugarrena:

Azkena:

• Asteburuetan

Maiztasuna:

Lehenengo autobusa: **9,00etan**

Bigarrena:

Hirugarrena:

Azkena:



• Zeinek hartu dute parte elkarrizketan?

• Zertarako deitu du?

• Zer zerbitzu nahi du: autopistakoa ala herrietakoa?

N.A

“Beti berandu” autobusak, bai esan?

Errepara diezaiogun aditu duzun entzungaiari.

1. Autobusen ordutegiari buruzko informazioa:

Egun on! Aizu, Donostiarako autobusen ordutegia jakin nahi nuke, mesedez.



Besteei zer bait **eskatzen** diegunean, aurrena haien arreta erakartzen dugu (**Aizu, aizue!**) eta kortesia-formulak erabiltzen ditugu (**Egun on!, mesedez**) eskaera leundu eta biguntzeko.

2. Informazio gehiago lortzeko:



Ederki. A! Beste kontu / gauza bat...

N.B

Noizero?

Maiztasuna

1. Noizetik noizera

Noizetik noizera pasatzen da autobusa?

- Lau ordu **TATIK** lau ordu **TARA**.
- Ordu erdi **TIK** ordu erdi **RA**.
- Hamar minutu **TIK** hamar minutu **RA**.

2. Noizero

Noizero pasatzen da autobusa?

- Lau ordu **ORO**
- Ordu erdi **ORO**
- Hamar minutu **ORO**


3. Zenbatetan?/Zenbat aldiz?

- | | | |
|-------------------|----------------|-------------|
| • BEHIN | • BEHIN | • Gutxitan |
| • Bi TAN | • Bi aldiz | • Askotan |
| • Hiru TAN | • Hiru aldiz | • Batzuetan |
| • (..) | • (..) | • (..) |

4. Noizbehinkako maiztasuna

- Aste **AN BEHIN** edo **BITAN** joaten gara zinera.
- Hilabete **AN** hiru **TAN** (hiru aldiz)
- Urte **AN BEHIN**
- Bost urte **TIK BEHIN**
- Sei hilabete **TIK BEHIN**

Euskal gramatika osoa.



3.

Jarduera

Jo dezagun...



Mintzamina

A. Paperean ikusi duzuna praktikara eramango bagenu? Bi egoera dituzu hemen zure bikotearekin egiteko.

Rolak banatu zuen artean egoerei ekiteko. Gero rolak aldatu.



1. Sendagilearen kontsultan zaude. Sendagileak botika (jarabe) bat hartzeko agindu dizu. Nola eskatuko zenioke noiz hartu behar duzun, noizero... zuri esateko?



2. Tren geltokira jo duzu asteburuan norabait joan nahi duzulako. Ordutegiari buruzko informazioa lortu behar duzu.



B.



Binaka zaudetela, **erantzun galdera hauei**, sekretu handia ez bada behintzat.

- Noiz joaten zara zinemara?
- Noiz egoten zara zure koadrilarekin?
- Noiz etortzen zaizkizu familiakoak bisitan?
- Noiz ikasten duzu euskara institutuan?
- Noiz tokatzen zaizu gorputz heziketa egitea?
- Noiz joaten zara ileapaindegira?
- Noiz egiten duzu zure logelako ohea?
- (...)

4.

Jarduera

Nik motorra nahiago



Mintzamina

Garraiobide garrantzitsuak ezagutu ditugu. Batzuk egokiak dira bidaia luzeetarako, beste batzuk, berriz, motzetarako. Gustuak eta prezioak zer esan handia dute garraiobideak aukeratzeko orduan. **Zuk zer diozu? Hitz egin zure bikotearekin eta egin zerrenda bat abantailak eta desabantailak aipatuz.**

	ABANTAILAK	DESABANTAILAK
KOTXEA		
AUTOBUSA		
HEGAZKINA		
TRENA		
MOTORRA		
BIZIKLETA		

5.

Jarduera



Irakurmena

Ba, niri behin zera gertatu zitzaidan...

Garraiobideak munduan zehar ibiltzeko dira. Asko dira hegazkina, motorra, trena edo autobusa hartu eta oso urrutira joaten direnak, eta bakar batzuek bidaietan gertatutakoak kontatzen dituzte. Hona hemen, besteak beste, Jon Arretxe idazle eta bidaiazale amorratuaren kasua.

Basaurikoa da Jon Arretxe. Bidaiazale amorratua, munduan ikusi dituen gauza eta pertsonak bultzatu dute idaztera. Gaztetan ez zitzaion irakurtzea gustatzen, ez zen literaturzalea. Bidai nobelak eta umorezko liburuak idatzi ditu gehienbat.

– Zer nolako eragina izan dute bidaiak zure literaturan?

– Eragin zuzena izan dute, noski. Bidaiak bultzatu ninduten idaztera. Munduan ikusi dudana kontatu behar nuela sentitu nuen eta horregatik hasi nintzen idazten.

– “Lurraren taupadak” liburua bidaiaren ondorioz sortu al zen?

– Amazonasera hiru bidaiak egin ditut, eta han ikusi eta ikasitakoa jaso dut liburu honetan. “Aturi” eta tribuen izenak asmatutakoak dira, baina jaso ditudan istorio eta kontu ugari nik bizitakoak edo hango indiarrek kontatu dizkidanak dira. Beraz, oinarri erreala du liburu honek. Indiarrekin ikasitakoa jaso dut.

– Zer eskaintzen die liburu honek gaztetxoei?

– Irakurleak ongi pasatzea nahi nuen nik. Abenturazko liburua da. Bestalde, indiarren bizimoduaz asko ikasiko du irakurleak: lurrarekin duten lotura, jasan dituzten basakeriak... Irakurleak beste bizimodu bat ezagutzea nahi nuen eta indiarrek nola bizi diren jakin dezala. Beste bizimodu bat da, eta bidaiak guztietan ikasten duzu beste herri eta pertsona batzuk nola bizi diren. Horrez gain abentura piloak bildu ditut, eta liburu dibertigarria dela uste dut.



Zabalik, 2001eko urriaren 13tik 14ra

IKUS DEZAGUN EA ONGI ULERTU DUZUN. ERANTZUN GALDEREI

Zergatik hasi zen Jon Arretxe idazten?

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Zer kontatzen du "Lurraren taupadak" liburuak?

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....



"Lurraren taupadak", liburu polita, ezta? Erantzunak idatzi ondoren, konparatu zure ikaskideak jarri duenarekin. Konprobatu nahi baduzu, hurrengo orrian duzu soluzioa.

“Aturi” du izena liburuaren protagonistak. “Aturi”-k, Amazoniako “Mukaxi” tribuko oihan-darrak, lurralde haietatik dakartza bizinahia, heriotza, maitasuna, borroka, elkartasuna... “Aturi”-k berak ematen digu familiaren, tribuaren eta bere inguruaren berri. Mitologiatik hasi eta gaur-gaurkoak diren arazoetaraino akzioz beteriko ibilbidea egingo du irakurleak, “Aturi”-ren eskutik betiere.

Amazoniara eginiko bidaiak hunkitu zuen Jon Arretxe eta hiru hilabete pasa zituen oihanean, indiarrekin. Han izandako bizipenak liburu batean jasotzea erabaki zuen eta errealitatea eta abentura batuz «Lurraren taupadak» liburua argitaratu du.




Hona hemen Jon Arretxek idatzitako beste nobela aipagarri bat: "TUBABU"

Istoria ederra dakarkigu Jon Arretxek, bidai kronikaren bizigarri guztiez gainezka. Egun berri bakoitzak istorio berria dakar. Egun berriarekin liburu berri bat jaiotzen dela esan daiteke.

Askotan gordin, umoretsu beste batzuetan, hunkigarri beti, maitasun handiz. Hizkuntzarekin bidaia egitea da Tubabu, egileak berak papereratzen dituen taupadak jarraituz. Bizikletaren abiadaz, ausardiaz, xarmaz eta arriskuaz egiten dugu aurrera, berez erakargarritasun nahikoa baduen Afrika Beltzean barna.

Ikasteko liburu bat da. Geografiaz, eguraldiaz, hareazko ekaitzaz, basamortuaz, gastronomiaz, musikaz, politikaz, gizarteaz... topikoz gainezka dagoen kultura ezezagunaz ari zaigu Jon Arretxe. Hiru hilabete, Marokon, Aljerian, Malin, Senegalen... Afrikaren bihotzeraino garamatzen kronika inolaz ere turistikoa.

Zabalik, 2001eko urriaren 6tik 7ra



6.

Jarduera

في اللطيفة الشرقية فنما الرياح



Irakurmena

Antzinako Egiptotik datorkigun pasadizo bat ekarri dizugu oraingoan. Tutankamon faraoia entzuna duzu? **Hona hemen bitxikeria bat. Irakurri.**

TUTANKAMON

Tutankamon izena noiz edo noiz entzungo zenuten. Tutankamon k.a. XVI. mendean bizi zen faraoia izan zen. Gazte hil, 19 urterekin, eta Erregeen Bailaran lurperatu zuten. 1922. urtera arte ez zuen inork haren hilobia aurkitu eta urte hartan, ¹ _____, azaldu zen faraoi gazte honen gorpua. Howard Carterrek eta haren lagunek topatu zuten eta hilkutxa ireki zutenean, Tutankamonen madarikazioa jaso omen zuten. Aurkikuntza hartan parte hartu zuten ikertzaile asko gaixotasun arraroz edo istripuz hil ziren, ² _____ momiaren mendekua izan zela esaten du zenbaitek. Lord Carnavon, ³ _____, gorpua aurkitu eta bi hilabetera hil zen gaixotasun ezezagun batek jota. Lord Carnavonen anaia ⁴ _____ zoratu ondoren hil zen, eta hilobiaren ondoan bi anaiekin egondako frantziar bat ere hil zen estropezu egin ondoren. Ez dakigu madarikaziorik izan ote zen ala ez. Batzuk baiezkotan daude eta beste batzuek, ⁵ _____, zorte txarra besterik ez dela diote. Batek daki...



Zabalik 2001eko urriaren 20tik 21era



Idazki batean lokailuak eta testu antolatzaileak ezinbestekoak dira testuan dauden ideiak behar bezala ulertu ahal izateko. Tutankamon faraoi gazte honi buruzko idazkian lokailu batzuk kendu ditugu.

Zuriune bakoitzean hiru hitz dituzu aukeran, bat bakarrik hartu eta jarri testuan.

1 a) horregatik b) hain zuzen ere c) dena den

2 a) honen ondorioz b) berriz c) bestela

3 a) ez hori bakarrik b) agian c) esaterako

4 a) zorionez b) ere c) berriz

5 a) ere bai b) hau da c) ordea



7.

Jarduera

Begiak itxi eta... lekutan zaude



Munduko zein lurralde gustatuko litzaizuke bisitatzea?

Hemen dituzu aukeratzen lagunduko dizuten proposamen batzuk.

Entzumena

1. Kaledonia Berria



2. Antillak: Martinika eta Guadalupe uharteak



Irudi politak, ezta? Launaka jarri eta denon artean idatzi, zerrenda baten modura, bideoan agertu diren gaiak.

1. DOKUMENTALA: KALEDONIA BERRIA

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

2. DOKUMENTALA: ANTILLAK (Martinika eta Guadalupe uharteak)

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....



9.

Jarduera

Etxera, beste bat jan dizut eta



Mintzamina

Bidaia bat egin baino lehen, gauza asko prestatu behar dira. Horien artean maleta. Partxisean agertuko zaizkizu maletan sartu behar diren zenbait objektu. Irakasleak azalduko dizkizu partxis berezi honen arauak.

PARTXISEAN

Euskaraz jolastu ahal izateko, esaldi hauek baliatu.

• Txanda hartzeko

- Orain nire txanda da.
- Orain niri tokatzen zait.

• Norbaiten txanda ez denean

- E, aizu, honi tokatzen zaio orain!
- Aizu, honen txanda da!

• Norbaiten fitxa jaten denean

- Etxera, fitxa jan dizut eta.

• Norbait tranpatan harrapatuz gero

- E, aizu, lotsagabea halakoa! Zer uste duzu?

• Barkamena eskatzean

- Barkatu, nahi gabe izan da.
- Barkatu, ez nuen hori egin nahi. Konturatu gabe egin dut.

• Norbaitek irabazten duenean

- Irabazi dut / dizuet.
- Ni irabazle!



10.A
Jarduera

Kaixo, zer moduz?



Mintzarena

Lagunei esaten badiegu oso leku urruti eta exotiko batean egon garela, besterik gabe sinetsiko ote digute? Horregatik bidaltzen dira postalak, zu leku batean egon zarela frogatzeko. Beno, horregatik eta beste gauza askorengatik ere bai: lagunei inbidia emateagatik, lagunez oroitu zarela ikusarazteagatik ...

Zuk postalak bidaltzen dizkiezu lagunei? Zertarako? Zerk egingen dizu ilusio handiagoa: postala bidaltzeak ala jasotzeak? Hitz egin taldeka.

10.B
Jarduera


Kaixo, zer moduz?



Irakurmena

Postalak idatzi eta bidaltzeko garaia heldu da.

Hemen duzu bikote batek Italiatik familiakoei bidali dien postala



Pisa, 2002ko maiatzaren 3a

Kaixo!

Zer moduz zaudete? Amonari katarroa sendatu zaio? Oso ondo gaude Italian, hau udaberrian zoragarria da.

Atzo Pisa ezagutzera joan ginen eta opari batzuk erosi genituen zuentzat.

Peruk aurkitu al du lanik?

Nire landareak ureztatu, mesedez! Eta Mikeli esan ondo portatzeko!

Maiatzaren 15ean ailegatuko gara.

Agur eta musu bana.



*El Muro kalea, 3,1.
Tutera (Nafarroa)
Espainia*



Entzumena

Familia honetako batek postala buzoitik hartu eta denei irakurri die.

ENTZUN


Testua aurrean duzula, entzun berriro. Ohartuko zinenez, testu batetik bestera aldaketa batzuk agertzen dira.

Zein dira?

A large rectangular area with a blue border and horizontal dotted lines, intended for writing answers.

10.C
Jarduera

Kaixo, zer moduz?




Idazmena

Ikaskideetako bati postal bat idatzi nahi diozu? Jarri papertxo batean zure izena eta eman irakasleari. Irakasleak jasoko dituen paper guztiak banatuko ditu.

Norena tokatu zaizu? Ba, horri idatzi eta bidali.



.....	
---	---

**Orain launakako taldean jarri eta bakoitzak jaso duen postala beste-
ei irakurri behar die. Zorte on!**

Arian, arian, edozer zulatzen da

Egin dezagun gogoeta txiki bat.

Zeuk ikasi duzuna burura eta paperera ekarri eta gero, konparatu hirunaka antzeko memorizazioa izan duzuen.

**ZER
IKASI
DUT?**

Sustantiboak

Adjetiboak

Nozioak



Pertsona



Ni zu baino zuhurragoa
naiz, beraz zu ni...



1.A Zer goxoa den Kontxi!
Jarduera



Entzumena



ENTZUN ELKARRIZKETA HAU!



1.B Zer goxoa den Kontxi!
Jarduera

Entzunaren ulermena

1. Zer dira Mikel eta Pello, aita-emeak?				
<input type="text"/>				
Zertan oinarritzen duzu zure erantzuna?				
<input type="text"/>				
2. Zertarako deitu dio Pellok Mikeli?			BAI	EZ
A	Lanera joan ezin izan zela esateko.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
B	Susanaren etxean aspertu zela kontatzeko.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
C	Festan zer moduz pasatu zuen galdetzeko.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
3. Festan Pello ere izan al zen?			<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
4. Eta Karmele?			<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
5. Eta Kontxi?			<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
6. Eta Berta?			<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

Zein da Karmele?; Zein da Berta?; Zein da Kontxi?



N

Atsegina, atsegina goa, atsegina...

NOZIOAK

A. Norbait deskribatzeko

Nolakoa(k) da / dira?

ADITZA	GRADUATZAILEA	ADJETIBOA	ADITZA
∅	oso	atsegina ^A	da
ez da	batere	lotsati ^A	∅
∅	∅	lirain ^{AK}	dira
∅	∅	ilehori ^{AK}	dira
	ADJETIBOA	GRADUATZAILEA	ADITZA
	txiki	samarr ^A	da
	lotsati	samar ^{HURA}	da

Nola dago / Nola ikusi zenuen?

SUJETOA	NOLA	ADITZA
neska hori	nekatu ^{RIK/TA}	dago
neska hori	polit ^{AGO}	ikusi nuen
neska hori	heldu ^{AGO}	ikusi nuen

B. Xehetasun gehiago emateko

Medikuntza ikasten du^{ENA}.

Begi handiak ditu^{ENA}.

Frantzia aldera ikastera joan
ZEN neska beltzaran bat.

Txirikorda du^{EN} neska astun hori.

Begi handiak
dituzte^{NAK} gustatzen zaizkit.

Ixildu gabe hitz egiten du^{ENA}.

2.A
Jarduera

Zein da Xabier?



Lexikoa

Lotu pertsona hauen deskribatzaileak ondoko irudiekin. Deskribatzaileok pertsona batentzat baino gehiagorentzat balio dezakete.

Lasai, ez dira laukitxo guztiak bete behar.

- | | | |
|--------------------|--------------------------|--------------------------|
| 1. altua | 8. beltzarana | 15. zaharra |
| 2. argala | 9. ile kizkurra | 16. gaztea ez dena |
| 3. ilehoria | 10. biboteduna | 17. gazte samarra |
| 4. bizarduna | 11. txikia | 18. mototsa duena |
| 5. ile luzea duena | 12. lodia | 19. betaurrekoak dituena |
| 6. gaztea | 13. burosoila | 20. ile txuria duena |
| 7. mehea | 14. begi txikiak dituena | |

Zein da Xabier?

11
12
13




Zein da Imanol?



Zein da Anttoni?



Zein da Arantxa?



Zein da Martxelo?



2.B
Jarduera

Burusoila, tximatsua...



Lexikoa

Jarri irudi bakoitzaren azpian dagokion adjetiboa.

Iletsua

Sendoa

Bizarduna

Burusoila


Itsusia

Ahula

Liraina

Tximatsua





2.C **aokixel**

Jarduera



Lexikoa

Hizkiak ordenatu eta gero, ea asmatzen dituzun ezkututzen diren adjetiboak!



1	AAHRARAZ	
2	ZETAGA	
3	DERAER	
4	ATILOP	
5	AUTAL	
6	KAXITI	
7	NIGEAZ	
8	HAMARRE	
9	TOREDOA	
10	AUEOINDTBB	

3. **Nolakoak dira zure etxeokak?**

Jarduera



Mintzamena

Hasieran jarri binaka, hartu zuen etxeokoen argazkiak, eta, saiakera modura, deskribatu zure ondokoari. Gero, klase osoaren aurrean errepikatu etxeokoen deskribapenak.



5.
Jarduera

Edozein izan daiteke susmagarri






Entzumena

Kalean dauden kutxazain automatiko horietako batean lapurreta bat gertatu da gaur goizean. Dena ikusi duten lekukoen hitzak entzungo dituzu.

- Lekuko guztien deklarazioak entzun ondoren, beheko taula bete.
- Gero, susmagarrien datu guztiak dituzula, ikusi beheko argazkiak eta identifikatu zure ustez lapurra izan daitekeena. Hitz egin zure bikotearekin.



	ADINA	ALTUERA	ILEA	ARROPA	BESTERIK
1					
2					
3					
4					



6.

Jarduera

Bai neska polita! Hau neska!







Mintzamena

A. Hemen dituzu “bihotzeko aldizkarietan” agertzen diren pertsona ospetsuen argazkiak. Baietz denak ezagutu!

Jarri launaka eta deskribatu. Ezaugarri fisikoez gainera izaera definitzen laguntzen ahal duten adjetibo batzuk ere eman ditugu. Erabili.

Argia	Atsegina	Interesgarria	Zuhurra
Azkarra	Tentela	Alferra	Zakarra
Berritsua	Eskuzabala	Apala	Zentzuduna
Harroa	Berekoia	Lotsagabea	Tontolapikoa
Ergela	Gaiztoa	Ixila	Langilea
			Eroa





B. Hitz egiten dugunean, gure barne-sentimenduak, jarrerak eta abar adierazteko **harridura-perpausak** esaten ditugu. Hauek dira, dudarik gabe, hizkuntzaren arlorik bizienetakoa.

Seguru Lequio kontearen argazkia ikusi bezain laster, zerbait esateko gogoia izan duzula! Baietz!

Orain zure iritzien arabera parekatu harridura-perpaus hauek argazkiekin.

Hau neska!
Alferra halakoa!
Astakiloa halakoa!
Bai atsegina!
Harroputza halakoa!
Gezurtia halakoa!
Zein itsusia den!
Zein ergela den!

Bai lotsagabea dela!
Bai zuhurra!
Bai gaiztoa dela!
Hori da neska ederra, hori!
Zer zakarra!
Zer txikia den!
Hau da gizon puska, hau!
Zein polita!

7.A
Jarduera

20 urteko mutil bat ezagutu nahi nuke...



Hemen dituzu "harremanak" izeneko egunkarietako atalera jendeak bidaltzen dituen iragar-ki batzuk. Binaka jarri, irakurri iragarki guztiak eta parekatu.

Mintzamina

...eta hau norekin jarriko dugu?

eta 60 urte ditue-
na norekin jarriko
dugu?

neska honekin. Begira,
adin beretsukoak dira
eta zaletasun antze-
koak dituzte.

nik uste dut (niri iru-
ditzen zait) horren-
tzat 55 urte dituen
jubilatua egokia dela.



Irakurmena

41 urteko emakumea, ezkongabea, xarman-
garria, lau urteko alaba bat duena. Mendia,
hondartza eta dantza egitea gustatzen zait.
35-45 urte bitarteko gizon bat ezagutu nahi
nuke, altua, beltzarana.

21 urteko neska, beltzarana, ez altua ez
txikia, begi berdeak, lotsati samarra
hasieran, atsegina. Ateratzea, zinemara
joatea gustatzen zait. Mutil leiala,
maitagarri bat ezagutu nahi dut,
printzipioz laguna izateko eta gero zerbait
gertatzen bada, hobeto.

32 urteko neska, independientea, sentibera, leiala, xarmagarria eta oso erromantikoa. Bidaiak egitea, paseoan ibiltzea, hondartza eta noizean behin parranda egitea gustatzen zait. Taxuzko mutila, altu eta maitagarri bat ezagutzea gustatuko litzaidake.

48 urteko emakume arrunta, beltzarana, potolo samarra. Gizon altu eta mehe bat ezagutu nahi dut, maitatzeko prest dagoena.

60 urteko emakume banandua, 1,60 zm. luze, goxoa eta alaia. Dantza egitea, itsasoan ibiltzea, hitz egitea dut gustuko. Gizon bat ezagutu nahi dut elkarrekin bizitzeko, barre egiteko, hitz egiteko eta bizitzak eskaintzen duena aprobetxatzeko.

38 urteko mutila, 1,83 zm. luze, 79 kilokoa, beltzarana, begi berdeak. Laguna izateko neska bat ezagutu nahi nuke.

45 urteko gizona, banandua eta bi semeren aita. Gorpuzkera arrunta, alaia. Kirola, irakurtzea, musika eta zinema gustuko ditut. Zaletasun hauek dituen emakume bat ezagutzea gustatuko litzaidake.

32 urteko mutila, erromantikoa, maitagarria, lotsatia eta argala. Laguna izateko 18 urtetik gorako neska baten bila nabil.

55 urteko gizon banandua, serioa baina umorea duena. Irakurtzea, zinema eta antzerkia gustuko ditut. Antzeko adina duen emakume bat ezagutu nahi nuke, maitagarria, arrunta, bizitza elkarrekin pasatzeko.

20 urteko mutila, ezkongai, interesgarria, beltzarana, ile kizkurra, jantzia. Sentsazio berriak probatzeko neska bat ezagutu nahi nuke.


7.B
Jarduera

14 urteko mutila, ederra, begi urdinak dituena...



Idazmena

Zuk ere inorekin jarri nahi al duzu harremanetan? Hala bada, idatzi zure iragarkia. Eman irakasleari klaseko horman jartzeko. Gero ikusi ikaskideek idatzi dituzten guztiak eta aukeratu zure gustuekin bat datorrena. Ondoren, guztiei eman zure aukeraketaren berri.



A large, light purple rectangular area with a decorative, torn-paper-like border. It contains two horizontal black lines, one near the top and one near the bottom, serving as a writing space for the student's response.

8.

Jarduera



Irakurmena

Hura zen gizona, hura!

Deskribapen testuak

Deskribatzea hitzez "pintatzea" da. Margolariek irudi batean paisaia, pertsonak, objektuak... modu ezberdinez (margotuz, koloreak erabiliz...) jasotzen dituzte. Igualtzu egiten dute idazleek hitzen bidez.

Hona ekarri ditugun adibideak "Galdu arte" izeneko liburuan agertzen diren pertsonaia batzuen deskribapenak dira. Honela idazleek beren liburuen protagonistei izaera eta ezaugarri fisikoak ematen dizkiete, irakurleok hobeto "ikusi" ahal izateko.



1. testua

... Xeperen aurpegia ez zen batere gozoa, batere ederra (...). Argaltasun gehiegizkoaz gain, halako zakartasun ilun bat zuen haren aurpegierak, ez, ordea, batere samurtasunik gabekoa, ongi begiratu gero. Ezpainak bezala, begiak ere txiki eta beldurriak zituen, izuak. Bati baino gehiagori entzun izan diot (...) itsusia zela. Gorputza, berriz, argalegia ezezik baldarregia ere bazuen, eta haren ibilera ziurtasunik ezaren adierazpiderik ziurrena zen. Dena den, (...) indar espresibo handia zuten, nire ustez, hala Xeperen aurpegierak nola gorpuzkerak.

Galdu arte (37)

2. testua

... -Bai, baina noiz arte honela? -mintzatu zen Leon, mutil argal eta urduria. Mantsotasun etsia zuen bere hizketaren doinu afektatu eta pasotak. Mantsotasun horrekin bat zetozen bere begi erdi itxiak. Latorrizko bost edo sei txapaz apaindutako larruzko txamarra punki beltza zuen soin gainean, ilea luze eta nahasia, egun batzuetako bizarra, esku batean porroa eta bestean garagardo lata bat.

Galdu arte (23-24)

3. testua

... Kanpotik etorritako jendearen artean Donostiako baska punki bat zegoen (...) eta haiekin Ute izeneko neska aleman bat, potolo samarra eta ipurtandia baina bizi-bizia, geldirik egoten ez zena. Txaleko punkia zuen, zulatutako niki berde ilun baten gainean jantzia; galtza eskoziar kremaileradunak; ilea motz-motz eta tarte batzuetan berdez tintatua; belarritakorik ez, baina ezkerreko sudurzuloan eraztun moduko bat sartua.

Galdu arte (66)

Irakurri ongi testuok eta bete fitxa hauek. Fitxa bakoitzean, ezkerreko aldean, deskribatzen diren gorputz-atalak, arropak... daude. Eskuin aldean jarri deskribagai horien ezaugarriak. Ikusi adibidea:

1. testua

Deskribagaiak	Nolakoak
Aurpegia	<ul style="list-style-type: none"> - ez zen batere gozoa. - ez zen batere ederra. - argalegia. - zakar samarra. - samur samarra.
Ezpainak / begiak	- txikiak, beldurtiak.
Gorputza	<ul style="list-style-type: none"> - argalegia. - baldarregia.

2. testua

Deskribagaiak	Nolakoak
Gorputza	
Hizketaren doinua	
Begiak	
Txamarra	
Ilea	
Bizarra	



3. testua

Deskribagaiak	Nolakoak
Neska (orokorrean)	
Janzkera: txalekoa nikia galtzak	
Ilea	

9.A
Jarduera


Ukondoa, gerria, bekaina...

Ba al dakizkizu pertsonen gorputz-atalen izenak? Ariketa honetan hitz ezagunak eta seguru ezezagunen bat ere topatuko dituzula. Hartu hitzok alboan dituzten zenbakiak eta eraman irudietara, adibidean agertzen den bezala.



Pertsona

- | | | | |
|-------------|-----------------|----------------|-------------|
| 1. burua | 10. bizkarra | 19. belauna | 28. betilea |
| 2. begia | 11. besoa | 20. oina | 29. kokotsa |
| 3. ahoa | 12. eskua | 21. orkatila | 30. bekokia |
| 4. sudurra | 13. aurpegia | 22. bularra | 31. ipurdia |
| 5. ezpainak | 14. behatza | 23. titia | 32. alua |
| 6. belarria | 15. eskumuturra | 24. zakila | 33. izterra |
| 7. ilea | 16. ukondoa | 25. barrabilak | |
| 8. lepoa | 17. sabela | 26. gerria | |
| 9. sorbalda | 18. hanka | 27. bekaina | |





Asmakizun hauen atzetik gorputz-atal batzuk aurkitzen dira.

1

Hogeita hamabi aukitxo txuri egongela zahar batean eta atso berritsu bat beldurrik gabe zapaltzen dituen.

2

Bost anaia elkarren ondoan beti ezin diote elkarri begiratu, borrokan hasten direnean, nahi baduzu ere, ezin dituzu separatu.

3

Kalean nindoala, komentu batekin egin nuen topo, mojak txuriz jantziak, superiora erdian, goraxeago bi leiho, eta gorago bi ispilu.

4

Afrikako animalia altu batek oso nabarmena du. Edozein botilatan, alkandoratan edo jertsetan aurkitu ahal da.

5

Irri egiten duzunean, agerian dira; esnea bezain txuriak, mozteko erabiltzen dituzu eta mastekatzeko ere bai.

6

Arrosa koloreko bi anaia, elkarrekin eta ixil-ixilik daude, baina hitz egiteko elkarrengandik bereiztea beharrezko dute.

Binaka jarri eta asmatu





7

Harriak bezain gogorrak dira, txakurrentzat jaki gozo-goza. Haiek gabe ezin duzu salto egin eta ibili ere ez.

8

Bi harresi txuriren artean lore gorri-gorri bat dago. Nahiz eta euria edo eguraldi ona egin, beti blai eginda dago.

9

Tabike bat dut erdi-erdian eta alboetan bi leiho. Haietatik aire garbi-garbia sartzen da eta arnastutakoa ateratzen.

10

Baratze batean kristalezko bi iturri daude, ura darienean, nekazaria ez dago pozik. Ai ene!

11

Ukitu ahal izango duzu moztu ere bai, baina inoiz ez zenbatu.

12

Elkarrekin datoz, elkarrekin doaz. Bata aurrean doa eta bestea atzean.

10.
Jarduera



Irakurmena

Euskal Herriko nork ez ditu ezagutzen?

Herri bakoitzak bere kultura eta tradizio handiko pertsonaiak ditu. Euskal Herriko batzuk ezagutu nahi dituzu?

Irakurri deskribapenak eta lotu irudiekin.

1. Pertsonaia hau Euskal Eguberriaren mezulari dugu. Aizkolari tripaundia, tri-pontzi eta zurruteroa, mendian behera abiatu zen, lasterka, Jesusen jaiotzaren albistea zabaltzera. Gabon gau arratsaldean gazte talde askok, baserritarrez jantzirik, laguntzen diote, Gabon kanta abestuz eta eskupekoa eskatuz; izan ere gazteek biltzen dutenarekin meriendatxo bat egiten dute.

“Orhipean” liburutik hartua eta moldatua.

2. Euskal Herriko basoetako jauna da. Oihan eta leizezuloetan bizi da, eta basoetan dabilzan artalde eta artzainak babesten ditu. Gizakion antzeko gorputza du, askoz handiagoa den arren. Gorputz guztia ilez estalia dauka, ile luze eta sendosendoz. Belaunetaraino iristen zaizkio tximak, eta sabelaldea ere estaltzen diote.

Ekaitza gainean badugu edo eguraldi txarra badator, pertsonaia hau garrasika eta oihuka hasten da, artzainek ardiak bildu eta leku segurura eramateko. Era berean, otsoa artaldeetatik urruntzen du, artzainek lasai lo egiteko.

Noizbehinka izaki beldurgarri bat bezala irudikatzen da, abilezia galanta eta izaera maltzurra duen biziduna balitz bezala. Beste batzuek nekazaria zela esaten dute. Kondaira askok diotenez, pertsonaia honek irakatsi zizkion gizakiari nekazaritza, errementari nahiz arotz-lanak. Izakiak jakinduria ugari lapurtu zizkion basoetako zaindariari.

“Zabalik” egunkaritik hartua eta moldatua.

3. Pertsonaia hau Santa Eufemiako mendian bizi zen, eta gizonak jaten zituelako “gizajalea” deitzen zioten Markinan. Begi bat bakarrik zuen bekoki erdian. Artalde handi bat zuen eta kobazulo batean bizi zen.

“Habe”-ko materialetik hartua eta moldatua.

4. Gipuzkoako herri batean jaio zen 1764an eta bederatzi seme-alaba izan zituen. Zalantzarik gabe gizon hau irudimen eta umore handikoa zen. Euskal Herriko txoko guztietaraino zabaldu dira ahoz aho “bere” esaera eta gertakizunak. Beno, egia esan, ez dakigu ziur horren izenean kontatzen diren pasadizo, asmakizun eta xeblekeria guztiak bereak diren ala ez, baina ez du inporta. Kontua da istorio horiekin barre egitea eta ongi pasatzea.

“J. Ormazabal”-en liburutik hartua eta moldatua.



11.
Jarduera

Nor da nor?



Mintzamena

Jolasean aritzeko unea iritsi da. Irakasleak esango dizu zer egin behar duzun.

Erne orduan!



N

Atsegina, atseginagoa, atseginena...

NOZIOAK

Seguru behin baino gehiagotan esaldi hau entzungo zenuela: “konparazioak gorroto-garriak dira” edo “las comparaciones son odiosas”; izan ere esaldi honek dioena egia bada ere, kalidadeak jokuan daudenean, konparatzea ezinbestekoa da.

Ikasi nahi al duzu euskaraz konparazioak egiten? Erne orduan!

Elementu bakarra dagoenean

A- Berdintasunezko konparazioak: HAIN

- Egia esan, ez du HAIN itsusia ematen.
- Ez da HAIN polita.
- Hau desilusia, HAIN atsegina ematen zuen...

B- Desberdintasunezko konparazioak:

- **Gehiagotasuna: -AGO(a)**
 - Rappel altuAGOA da.
 - Tom Cruisek politAGO ematen du telebistan.
 - Lequio kontea altuAGO agertzen da argazkian, baina ez da HAIN altua, bajuAGOA da.
- **Gehiegitasuna : -EGI(a)**
 - Penélope Cruz txikiEGIA da aktorea izateko.
 - Lequio kontea nekatuEGI jaio zen lan egiteko.
- **Gehientasuna: -EN(a)**
 - Julia Roberts ederrENA da.
 - Lequio kontea ospetsu guztietan alferrENA da.




Kontuz!

ona → hobe → onena → onegia

2 elementu daudenean


A- Berdintasunezko konparazioak: BEZAIN

- Pierce Brosnan L. Di Caprio BEZAIN langilea da.
- Florentino Paz Padilla BEZAIN umoretsua da.



B- Desberdintasunezkoa:

- Alejandro Sanz Belén Esteban BAINO atseginAGOA da.
- Belén Esteban ez da A. Sanz BEZAIN atsegina.
- L. Di Caprio Rappel BAINO gazteAGOA da.



12.

Jarduera

Txutxu-mutxuka



Mintzamena

Famoseo munduko pertsonaiekin ibili zarete 6. jardueran. Zergatik ez gara txutxu-mutxuka aritzen zure ikaskideez?

Jarri binaka eta erantzun galderei zure klasekoen artean aukeraketa eginez.

Gero taldearen aurrean azaldu eta konparatu beste taldeetan gertatutakoa.

Zein da Belén Esteban baino kotilagoa?

Zein da Lequio kontea bezain alferra?

Zein da Tom Cruise bezain dotorea?

Zein da Rappel bezain harroa?

Zein da Boris baino lotsagabeagoa?

Zein da Lady D. bezain ona?

Zein da C. Ordóñez bezain juergista?

Zein da Florentino bezain berritsua?

Zein da ikaskiderik martxosoena?

Zein da ikaskiderik lotsagabeena?

Zein da ikaskiderik ausartena?

Zein da ikaskiderik jakintsuena?

Zein da ikaskiderik eskuzabalena?

Galdera gehiago prestatu!

Arian, arian, edozer zulatzen da

Egin dezagun gogoeta txiki bat.

Zeuk ikasi duzuna burura eta paperera ekarri eta gero, konparatu hirunaka antzeko memorizazioa izan duzuen.

**ZER
IKASI
DUT?**

Sustantiboak

Adjetiboak

Nozioak